

Norberaren inguruko ERALDAKETA SOZIALA lortzeko, lehenik, gizakion egiazko barne erregenerazioa gauzatu behar dugu. Hortarako, giza balio eta ideia onak errealitate bihurtzen dituzten ekintza planak martzan jarri.

Ara hemen guztihau, indarrik haundienarekin adierazten duten hainbat gogoeta:

Gizakien gogoaren barru-barruan badago zerbait finkoa eta betikoa dena, baina badago ere beste zerbait mugitzen egon behar dena zerbait berri eta gorago dagoenerantz hedatuta, gizakiaren barne erregenerazio eta erregenerazio sozialarekin bat etorriz, eta horregatik gizartean egiten duen guztian eraldaketa hori nabarmendu behar da.

042

Zer da gizakia?

Izaki ez perfektu bat.

Hobetu daitekeen izaki bat.

Eraldatzea, eta ez begiratzea, helburu duen izaki bat.

*Nork bere burua eraldatzea,
inguruan duena eraldatzea.*

040

Mundua ez zaigu eman kontenplatzeko, eraldatzeko baizik.

235

Gauzatzen ez den doktrina, ekintza bihurtzen ez diren sinismenak, taupadarik ez duen bizitza edo bibratzen ez duen mugimendua bezain arraroa da. Ez gaude munduan begira egoteko edo kexatzeko, eraldatzeko baizik.

238

Hezkuntzak, lanak eta aurrezteak hain ematen dute desberdin belarrira, ezen gai bakar gisa aztertzea kontraesana dirudien; hala ere, arazo berari dagozkion hiru dimentsio edo aspektutzat jo behar ditugu: gizakien eta herrien sustapen sozialaren arazoari loturiko dimentsio edo aspektutzat.

523

Mundua ez zaigu eman bakarrik begiratzeko, eraldatzeko ere eman zaigu, eta eraldaketa hori ez da eskuekin egingo, lehenengo ideiekin eta ekintza planekin egingo da.

043